

## **AMATZAKO SAN MARTIN (IURRETA)**

Aitzol Altuna, Galdakano Nabarra (2005.6.12)

Real Sociedad Baskongada de Amigos del País-ek jarritako oroigarri honen aurrean aurkitzen gara Bizkaia Nabarra dela gogorarazteko:

Asturiasko Alfonso III.naren kronika neogotikoetan, 886. urtean, Bizkaia aipatzen da lehenengo aldiz, Alaba, Berrueza, Deio, Alaone eta Iruñarekin batera, “bertakoek jabe diren lurak direla” esateko.

Ongi dataturiko Bizkaiko lehenengo Jauna 920. urtekoa da, Munio López (edo Manso López) deiturikoa eta Aretxabalaganen lurperatutakoa, zinpeko baselizatik gertu, Belazquitarekin (Velasquita) ezkonduetakoa, Antso I Gartztea eta bere emaztearen Toda Aznarren Andreamen alaba, Donemiliaga Kukulakoaren fundatzaileak hain zuzen. Gainera baliteke, López Fortuneen semea izatea (870-909), Urdaibaikoa, Jaun Zuria pertsonai mitologikoa bezala, Arrigorriagako Padurako batailan asturiarren ejertzitoaren kontra garaile izan zena 870an. Meyako eta Rodako genealogia nafarretan (970-992), azken hau Nafarroako erregeen jauregian idatzita, Bizkaiko dukerri, gero jaurerriaren, lehenengoko erreferentzi idatzia agertzen da: “domni Momi Comitibus Biscahiensis”, beraz Nafarroako erreinuaren barnean: guzti honetatik, Bizkaia beste nabarrekin bat bere borondatez egin zuela ondorioztatzen da, euskal Estatuaren sortzeko.

Urteak joanda, Antso III.na Nagusiak, bere primuari, Naiarako Gartzinari, Nafarroako erreinua utzi zion. Erreinuaren lurraldetasuna 1016an idatzita gelditu zen Donemiliaga Kukulakoaren 166garren kartularioan, bertan, Nabarra, euskaraz mintzo diren lurraldeak dira: Cudeyo menditik (Santanderretik gertu), Pallarsera (Lleida-Catalunya), eta Bordigalatik, Oka mendilerroa arte Burgosen, edo Garrayra arte Sorian (aintzinako Numancia hiri historikoa). Guzti horiek Naiarako Gartzia IV herentziak dira, 1045 Kalagurri musulmanei konkistatuz eta Santoña fundatuz (Kantabria).

Iribarren eta Kanpion Euskal historialariek dioten bezala, Antso III.nak bere lengusuari “euskaraz mintzo zen herria utzi zion”. Anacleto Ortuetak, politikoa, kazetaria eta historialaria, Europako errege handi honen gainean esaten digu: “Antso III Nagusiak euskal Estatuaren mugak jakintsuki aukeratu zituen, Nabarrari eman zizkion mugak geografiko naturalak zirelako. Euskal nortasunaren gordetzailerak jakintsua da. Berari esker herri lez bizi gara”.

Horrela bada, Antso Gartzia IV Naiarakoaren erregetzan 1072. urtean, Amatzako San Martin baseliza hau Donemiliaga Kukulakoa Errioxako nafar monasteriori eskainia izan zen. Nafarroako erregearekin batera, Iñigo López Jauna eta bere emaztea Toda Andrea, Bizkaiko kondeek, sinatzen dute. Durangoko Nafarroako dukerria, lurreta barne, Bizkaikoaren menpe zegoen eta 1095tik bat egina.

Bizkaiko kostaldeko Ondarroako, Lekeitioko eta Bermeoko herrien Arrainak eskabetxe eran, gatzetan jarrita, edo freskoko bide komertzialak, Urkiola mendatetik egiten ziren, Estibaliz edo Donemiliaga Kukulakoko santutegira egiten ziren aitzinetik, azken monasterio honek, baselizak eta lurak zituzten Bermeon, Busturiako Axpen edo lurretako honako hau, bere arrain beharra asetzeko. Bueltan, mandoek, Errioxako, Nafarroa Garaiko edo Gaztela herriko produktuak zekartzaten, bereziki garia eta ardoa. "Libro del Buen Amor" liburuan, Hitako Artzapezpikuak, honela zion: "itsasoan bizi diren guztiek torneora etorri ziren, bokartak eta bisiguak Bermeotik etorri ziren".

Bide komertzial guzti hauek zaintzen Nafarroako erreinuko dorreak zeuden, Bilboko Malmasin bezalakoa, Ereñozar, Gaztelugatxe, Untzueta, Gaztelumendi (Bizkargin) edo Deba Garaiko atea Alabarantz Arlabandik, Leintz-Gatzagatik gertu, zaintzen zuen Aitzorrotzekoa. Amatzako San Martin Baseliza honetatik kilometro gutxira, Astxikin, Nafarroako beste gaztelu bat zegoen, Urkiolako pasarte estrategikoa kontrolatzen zuena. Gaztelu edo dorre horretako hondakin artean eta mendi-mazela batean botata, bataila baten azkonak, geziak eta Alfonso VIII.naren okupatzaile gaztelarraren txanponak agertu dira, armen arrazoiengatik eta bere ejertzitoen buru, Itsas-Nabarraren konkistatzailea.

Nafarroako Foru Jeneralak izango ziren legeen lehenengo idatzietan, hurrengo esaldi hau irakur daiteke: "fuero que ha el rey de Navarra con todos sus navarros y los navarros con el Rey". 1234ko errege nafarren zina, zinpekoak ez direla kontzesioak edo bertan behera utzi daitezkeen pribilegioak, Erreinuaren Konstituzio politikoaren parte zirela baizik diosku. Legeek erregeen gaintik zeuden. Gorteek argi dute "nafar guztien izenean ari direla", edo eta "Nafarroako erreinuaren herri osoaren izenean". Aitonon-semeen Juntetako goiburua "pro libertate patria gens libera state", libertate publikoak eta pribatuak ezinbestekoak direla nazioaren askatasunerako aldarrikatzen dute: "Aberria libre izateko, herria libre behar du izan"

Rousseauk esaten zuen demokraziatik totalitarismora pasatu daitekeela, baina kontrako kasurik ez dela ezagutzen, beraz Espainia eta Frantzia ezinezkoa da demokratikoak izatea, horretarako Euskal Estatu Nabarraren konkista eta okupazio militarra onartu beharko lukete beste gauza batzuen artean.

Nabarrako Estatua euskal herritarren indarretik sortua da eta proiektu horretarako gure atxikimendu libretik.

Estatu bat gera ez dugulako inoiz nafar izateari utzi eta NABARRAekin amaitu nahi duten Estatu Inperialistetan integratzerik ez dugulako nahi.

**GORA NABARRA ASKATUTA!**